



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

# GRADU AMAIERAKO LANA

**HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2013/2014 ikasturtea**

**ETORKINEN SEME-ALABEN JATORRIZKO HIZKUNTZEN  
TRATAERA ESKOLAN**

**Egilea: MAITANE FALAGAN LANDA**

**Zuzendaria: ANE BELDARRAIN AMORIZA**

**Leioan, 2014ko ekainaren 13an**



Creative Commons Reconocimiento 4.0 Internacional.

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera .....	5
1.1 Familia etorkinen seme-alaben eskolatzea EAEn .....	5
1.2 Hezkuntza elebidunean ikasleen ama hizkuntzari eman zaion trataera .....	6
1.3 Ikasleen ama hizkuntzen trataera hizkuntza horiek eskolari ezezagunak zaizkionean.....	9
2. Metodologia eta lanaren garapena .....	11
3. Emaitzak eta ondorioak .....	14
3.1 Emaitzak.....	14
3.2 Ondorioak.....	16
3.3 Etorkizunerako proposamenak.....	19
4. Erreferentzia bibliografikoak.....	20

## ERANSKINAK

1. eranskina: Kontrol-zerrenda.....	21
2. eranskina: Zuzendariari elkarrizketa .....	29
3. eranskina: Irakasleari elkarrizketa.....	34

## **ETORKINEN SEME-ALABEN JATORRIZKO HIZKUNTZEN TRATAERA ESKOLAN**

**Maitane Falagán Landa**

UPV/EHU

EAEko hezkuntza sistemak gero eta ikasle etorkin kopuru handiagoa du. Horrek ikasgeletan hizkuntz aniztasuna sortzen du, ezinezkoa bihurtuz irakasleek ume gutzien ama hizkuntza jakitea. Egoera berri horren aurrean, lan honen helburua da jatorri etorkina duten ikasleen ama hizkuntzei eskolan ematen zaien trataera ezagutzea. Asmo horrekin, adituek eskolako hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan umeen ama hizkuntzek duten garrantziaz diotena aztertu dugu eta, ondoren, etorkin kopuru handia duen eskola publiko batean murgildu gara errealitate hori ikertzeko. Azterketa-lanean lorturiko emaitzak ikusita, ez du ematen ikastetxe horretan jarraitzen ari diren hezkuntza elebiduna modu egokiena denik egoera berriari erantzuteko eta badirudi interesgarria izan daitekeela antolakuntza, metodologia eta estrategia berritzaileetan pentsatzea.

*Ikasle etorkinak, hizkuntz aniztasuna, ama hizkuntza, hezkuntza elebiduna, berrikuntza*

El sistema educativo de la CAPV acoge cada vez un mayor número de alumnado inmigrante. En consecuencia, nuestras aulas cada vez tienen más diversidad lingüística lo que hace que el profesorado no conozca todas las lenguas presentes en las mismas. Ante esta nueva situación, este trabajo tiene como objetivo conocer el tratamiento que se da a las lenguas maternas del alumnado en la escuela. Con esa intención, hemos analizado la opinión de los autores sobre la importancia de las lenguas maternas del alumnado en el proceso de aprendizaje de la lengua de la escuela y nos hemos sumergido en la realidad de un centro público con alto porcentaje de inmigración para realizar una pequeña investigación. Analizados los resultados obtenidos en este trabajo, no parece que la educación bilingüe que se está llevando a cabo en dicho centro sea el modo más adecuado para responder a la nueva situación, por lo puede ser interesante pensar en formas de organización, metodologías y estrategias innovadoras.

*Alumnado inmigrante, diversidad lingüística, lengua materna, educación bilingüe, innovación*

The educational system in the BAC host an increasing number of immigrant students. Consequently, our classrooms have more and more linguistic diversity and teachers do not always know all the languages of their students. In this new situation, this research work aims to determine the treatment of the mother tongues of the students in the school. Therefore, we have read the importance given by the authors to the mother tongues of children in the process of learning the language of the school and we have approached to the reality of a public school, in order to examine it closely. We have collected information from school and, according to the results obtained, it is clear that it is necessary to question the traditional bilingual education of the school and think of new methodologies, organizations and innovative strategies that respond to this situation.

*Immigrant students, linguistic diversity, mother tongue, bilingual education, innovation*

## Sarrera

EAEko hezkuntza sisteman sartzen diren etorkinen kopuruak hazkunde deigarria izan du azken urteotan, eta fenomeno horrek ekarri du eskolan eta ikasgeletan askotariko hizkuntzak biltzea, askotan irakasleentzat ezezagunak direnak. Hizkuntz aniztasunak, besteren artean, orain arte euskal hezkuntza elebidunak izan duen arrakasta auzitan jarri du, eskolak egun hartzen dituen ikasleek oso ezaugarri eta behar ezberdinak dituztelako. Beraz, tradizioz EAEn ezagutzen genuen hezkuntza elebiduna egoera berri baten aurrean dago eta aldaketak egitea behar-beharrezkoa izango da ikasle guztien eskola-arrakasta bermatzeko.

Egoera berri hori gertutik ezagutzeko aukera izan dugu gure azken praktikaldian. Izan ere, etorkin kopuru handia duen hirigune baten erdian kokatzen den eskola publiko batean izan gara eta, egia esan, praktiketan egon garen aurreko ikastolekin konparatuta, oso errealitate ezberdin eta berezia da hura. Egonaldian zehar, gure buruari egindako galderak bata bestearen atzetik etorri dira: Zergatik biltzen dira hainbeste ikasle etorkin eskola honetan? Betidanik egon da hain etorkin kopuru handia? Nongoak izango dira? Nolakoa izango da ikasle hauen harrera? Zelako formakuntza izango dute irakasleek ikasle hauek hartzeko? Zelako tratamendua izango dute ikasle hauen kulturek eta hizkuntzek eskolan? Nolakoa izango da eskola eta familien arteko komunikazioa? Galdera eta zalantza guzti horiei erantzuna emateak oso ikerketa zabala eskatzen duenez, lan honetan, azterlana mugatuz, galdera bakarra saiatuko gara erantzuten: Zelako trataera eman behar dio eskolak ume etorkinen ama hizkuntzari, irakasleek hizkuntza horiek ezagutzen ez dituztenean?

Kezka hori buruan, lehenik eta behin, irakurri dugu ikasle etorkinen ama hizkuntzek eskolan izan behar duten presentziari buruz adituek diotena, eta ondoren, ikertu dugu ikastetxeko Haur Hezkuntzako 4 urteko gelan ikasle etorkinen ama hizkuntzei ematen zaien trataera. Horretarako, eskolako zenbait dokumentu aztertu dugu, behaketak egin ditugu eta bertako bi profesionalekin elkarriketatu gara.

Ondorioetan azaltzen denez, azterlan honek agerian utzi du eskolak oraindik erronka duela ikasle etorkinek ekarri duten hizkuntz aniztasunari erantzuteko eta egokia litzatekeela metodologia, antolakuntza eta baliabide berritzaileak martxan jartzea.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

### 1.1. Familia etorkinen seme-alaben eskolatzea EAEn

Herrialdeen arteko pertsonen mugikortasunaren ondorioz, gure gizartera milaka pertsona etorri dira azkeneko urteetan, eta EAEko hezkuntza sisteman ere nabaritu izan dugu aldaketa hori orain dela urte batzuetatik hona. Errealitatea islatzen duten datuetan ikus dezakegunez, 1999/2000 ikasturtean, ikasle etorkinak EAEko hezkuntza sistema osoaren %0,78 ziren, eta 2010/2011 ikasturtean, ordea, %8,1 (Eusko Jaurlaritza, 2012). Horrek argi erakusten du EAEko hezkuntza sistemak gero eta ikasle etorkin gehiago hartzeko joera duela.

Gainera, Barquinek (2009) azaltzen duen bezala, ikasle etorkin horiek egoera berri bat sortu dute gure hezkuntzan. Etorkinen presentzia ez da berria gure ikastetxeetan, baina kanpotik gurera heldutako milaka ikasle horiek hizkuntz aniztasun eta kultural zabalagoa ekarri dute ikasgeletara. Hain zuzen ere, Immigrazio Behatokiaren arabera, ikasle etorkinen %40,9 Hegoamerikatik datoz, %29 Afrikatik eta gainontzeko gehiena, %17, Europatik (Eusko Jaurlaritza, 2012)<sup>1</sup>. Gertatzen da, beraz, familia etorkin askoren seme-alaben jatorrizko hizkuntza ez izatea hemen ofizialak diren hizkuntzetako bat eta, askotan, familiako eta eskolako ohiturak, kultura eta arauak oso ezberdinak izatea. Barquini jarraituz, errealitate berri horren beste adierazle batzuk dira, adibidez, ume gehiago heltzen direla ikasturtea hasita dagoela, ume batzuk ez direla inoiz eskolatuta egon eta etorkinen seme-alaben mugikortasun handia.

Bestalde, euskara hizkuntza ahula da, zaindu beharrekoa. Eta euskal eskola, euskararen biziberritzearen eragile nagusietako bat den heinean, gure herriko hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilera sustatzeko gogor lan egin behar du. Hori dela eta, eskola askoren hizkuntza nagusia euskara da eta ikasle etorkinen eskolatzea, beraz, kasu askotan, D ereduan izaten da. Horrek, gure herrian, Estatuko leku askotan gertatzen ez

---

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzaren arabera, ikasle etorkinak dira Estatuz kanpo jaio eta gure herrira bizitzera etorri diren ikasleak eta bertan bi urte baino gutxiago daramatzatenak. Baina eztabaida dago adituen artean "ikasle etorkin" definitzeko orduan. Guk lan honetan ikasle etorkintzat hartu ditugu bai kanpoan jaiotakoak bai bertan jaiotakoak baina familia etorkinen seme-alabak direnak, arrazoi praktikoa batengatik: azken hauen kasuan, bertokoak izanik ere, askotan, euren etxeko hizkuntza eta kultura ez datoz bat eskolakoekin eta errealitate hori ezin dugu ahaztu; zentzu horretan izendatzen ditugu "etorkin".

den egoera berezia sortzen du: eskolak lurraldeko hizkuntza ahula indartu eta zabaldu behar du eta, aldi berean, ezin du ahaztu umeen jatorrizko hizkuntza.

Gauzak horrela, jatorri linguistiko eta kultural oso ezberdinak dituzten ikasleak izanik gure ikastetxeetan, nola jokatu behar du EAEko hezkuntza sistemak aniztasun linguistiko eta kultural hori kudeatzeko? Galdera oso zabala da lan honetan sakondu ahal izateko. Hortaz, galdera mugatu eta alderdi linguistikoa aztertuko dugu, arreta ikasle etorkinen etxeko hizkuntzan jarritz: Nolako trataera eman behar dio eskolak familia etorkinen seme-alaben jatorrizko hizkuntzari?

## **1.2. Hezkuntza elebidunean ikasleen ama hizkuntzari eman zaion trataera**

Ikasle etorkinek planteatzen duten erronkaren aurrean, euskal hezkuntza sistema ez da ezjakintasun egoera batetik abiatzen. Gure herriak hezkuntza elebidunean ibilbide luzea egin du eta esperientzia handia du etxetik eskolara hizkuntza aldatzen duten programetan. Eta, aurrerago ikusiko dugunez, hezkuntza elebidunaren zenbait planteamenduk baliagarri izaten jarraitzen du eskoletako aniztasun linguistikoari erantzuteko, aldaketaren bat egitea behar-beharrezkoa bada ere.

Vilak eta Siguánek (1998) hezkuntza elebidunaren arrakastan eragiten duten faktoreak aztertu dituzte eta autore horiek diotenaren arabera, hezkuntza elebidunaren arrakastak ala porrotak lotura estua du eskolak ikasleen ama hizkuntzari ematen dion trataerarekin, besteren artean.

Hezkuntza elebiduna arrakastatsua izateko, Lambertek 1974ean bere ikerlanean ondorioztatu zuenez, elebitasunak gehitzailea izan behar du (Bilbao, 1998). Hau da, eskolako hizkuntza etxeko hizkuntzari gehitu behar zaio, ez dio umearen ama-hizkuntzari lekua eta prestigioa kendu behar. Elebitasun gehitzailea gertatzen da ama-hizkuntza gizartean indartsua izanik, haurra bigarren hizkuntzara borondatez hurbiltzen denean, etxeko hizkuntza galtzeko beldurrik gabe. Baina umearen ama hizkuntza sozialki ahula izanik, halabeharrez ikasi behar duenean bigarren hizkuntza batean eta eskolaren helburua bada ume hori ingurune ko kultura eta hizkuntza nagusira asimilatzea, egoera horrek barne-gatazkak eragin ditzake haurraren -etxeko hizkuntza maite baina hartaz lotsatu, eskolako gorrotatu baina baliotsutzat hartu, ...- eta ondorio larriak ekar dakizkioke arlo akademikoan, sozialean eta pertsonalean; kasu

honetan, elebitasun kentzailea -hizkuntza batak besteari kentzen dio lekua- gertatuko litzateke. Lambertek zioenez, eskolak hizkuntza ahulenari eman behar dio lehentasuna, ikasleen autoestima eta identitate arazoak ekiditeko; eta, aldi berean, ziurtatu hizkuntza biekiko (H1 eta H2) umeen jarrera positiboa (Vila, 2010).

Lambertek, jarrera linguistikoen garrantzia azpimarratzeaz gain, zeharka onartu zuen hizkuntzen artean harremana dagoela, baina Cummins izango da geroago Elkarmenpekotasunaren Teorian ideia hori esplizituki adieraziko duena (Vila, Siqués eta Roig, 2006). Hasiera batean, 1979an, honela formulatu zuen bere hipotesia:

(...) ume elebidun batek H2n (bigarren hizkuntza) lortzen duen gaitasuna, H2ren eraginpean modu intentsiboan jartzen den momentuan H1ean (ama hizkuntza) garatua zuen hizkuntz gaitasun mailaren arabera da (Vila, Siqués eta Roig, 2006: 92)

Eta, gero, beste modu honetan birformulatu zuen:

(...) Hx-n jasotako irakaskuntza Hx-ko gaitasuna sustatzeko efikaza den heinean, gaitasun hori Hy-ra transferituko da baldin eta Hy-ren eraginpean era egokian egoteko aukerarik bada -eskolan edo inguruan- eta Hy ikasteko motibazio egokirik bada (Vila, Siqués eta Roig, 2006: 92)

Teoria horren bidez, Cumminsek H1en ikaskuntza eta H2rena lotuak daudelako ikuspegia azaltzen du (Bilbao, 1998). Izan ere, elebidunak edo eleaniztunak komunikaziorako gaitasun orokor bat du -sakoneko gaitasuna-, hizkuntza guztietarako bera dena. Hizkuntza bakoitza ez da bere kabuz garatzen, beste hizkuntzekin inolako erlazorik gabe: H1eko gaitasunak eragina du H2koan eta, alderantziz, batez ere, zenbait trebetasunetan. Hau da, transferentziak gertatzen dira elebidun edo eleaniztun batek ikasten dituen hizkuntzen artean sakoneko gaitasunei dagokienean, baldintza jakin batzuk -motibazio eta erabiltzeko aukera egokiak- betetzen direnean. Transferentzia hori hizkuntza gutxitutik indartsura eta hizkuntza indartsutik gutxitura egin daiteke, baina errazago gertatuko da lehen kasuan. Beraz, teoria horren arabera, ikasleen ama hizkuntza oso baliabide garrantzitsua da bigarren hizkuntzaren ikasketarako eta garapenerako: hau da, ama hizkuntzaren (H1) garapen on batek bigarren hizkuntzaren (H2) ikasketan laguntzen du, umeak H1ean erabiltzen dituen estrategiak eta gaitasunak modu erraz batean H2ra transferitzen dituelako.

Horrenbestez, arrazoituta gelditzen da, hezkuntza elebidunaren ikuspuntutik, beharrezkoa dela ikasleen ama hizkuntzak presentzia izatea eskolan, eskolako hizkuntzan gaitasuna eta eskola-arrakasta lortzeko. Azken batean, Cumminsek (2001)

dioenez umearen hizkuntza onartzeak umea bera onartzea esan nahi du, eta umea onartua sentitzen bada, errazago emango dio zentzua eskolako ikasketa prozesuari eta bere parte hartzea aktiboagoa izango da.

Planteamendu horri jarraituz, gurean haur gaztelaniadun gehienak etxetik eskolara hizkuntza aldatzen duten murgiltze programetan sartzen dira eta euskaraz ikasten dute. Euren ama hizkuntza gizarteko hizkuntza indartsua eta prestigioduna da. Gainera, ikasle horiek era boluntarioan ikasten dute eskolako hizkuntza, irakasleak elebidunak dira eta komunikazioa ziurtatuta dago, eta eskolak euskarari lehentasuna eman arren, umeen ama hizkuntza ere lantzen du. Kasu honetan, ez da autoestima eta identitate arazorik sortzen eta ume horiek, H2 garatzeaz gain, H1 ere garatzen dute, bai eskolan hizkuntzei ematen zaien trataeragatik bai gizartean gaztelaniak duen indarragatik. Bestalde, ama hizkuntza euskara duten ikasleak mantentze programetan sartzen dira. Eskolak lehentasuna ematen dio haien ama hizkuntzari gizartean ahula delako eta, aldi berean, umeek gaztelania ere ikasten dute eskolan hizkuntzei ematen zaien trataeragatik eta gizarteko hizkuntza indartsua delako, eta ondorioz, hori erabiltzeko aukera eta ikasteko motibazioa dutelako.

Familia etorkinen haurrei edota ikasle etorkinei dagokienez, ikasle horiek ama hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenean, hezkuntza elebidunaren esperientziak esaten digu mantentze programetan eskolatu beharko liratekeela. Baina egoera hau bideratu ezina da bi arrazoi nagusirengatik. Lehena, ikasleak ama hizkuntzaren arabera taldekatzeak eskolan antolamendu arazoak ekar ditzakeelako eta giza baliabide anitz eskatzen dituelako: ikasleen ama hizkuntzak ezagutzen dituzten irakasleak beharko lirateke eta urte batetik bestera hizkuntza berriak hel daitezke eskolara. Bigarrena, ikasleak ama hizkuntzaren arabera bereizteak eskola inklusibitatearen ikuspegitik urruntzen duelako, eta horrek gizarte-kohesioaren etorkizuna ere auzitan jarri dezakeelako (Vila eta Serra, 2009).

Hori dela eta, ezin zaio eutsi orain arteko hezkuntza sistemaren antolamenduari, ikasleen jatorrizko hizkuntzen tratamenduan oinarritzen dena. Vila eta Serraren (2009:32) esanetan, "ikasleek tradizioz duten hizkuntza-aniztasunaren tratamendutik ikasgelan duten hizkuntza-aniztasunaren tratamendura" pasatu behar dugu. Hortaz, euskal eskolak antolamendua eta egitura aldatu beharra dauka ikasgeletako hizkuntz



aniztasunari erantzuteko eta, aldi berean, behar-beharrezkoa da hezkuntza praktika bera ere egoera berrira egokitzea ikasle guztien heziketa hobetzeko.

### **1.3. Ikasleen ama hizkuntzen trataera hizkuntza horiek eskolari ezezagunak zaizkionean**

Ignasi Vilak (2010) dioenez, eskolan eta ikasgelan hizkuntza aniztasuna dagoenean, konplexua egiten da hezkuntza prozesua aurrera eramatea. Horregatik, ikasgela eleaniztunak dakartzan zailtasunak gainditzeko asmoz, hainbat adituk ekarpenak egin dituzte ikasgelan ikasleen ama hizkuntza aniztasunari hezkuntza trataera egokia bermatu nahian.

Vilak bide diferenteak proposatzen ditu: a) ikasleen ama hizkuntzen ezagutza sinbolikoa, b) ikasleen ama hizkuntzen erabilera hezkuntza praktikan eta c) ama hizkuntzak irakastea eskolan.

#### **a. Ikasle etorkinen ama hizkuntzen ezagutza sinbolikoa**

Vilaren (2010) esanetan, modu asko daude ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzen balioa sinbolikoki aitortzeko. Horietako bat da, adibidez, ikasleen ama hizkuntzak eskolako hizkuntz paisaia<sup>2</sup> erabiltzea: ikastetxeetako korridoretan azaltzen diren errotuluetan, karteletan eta ikasgelako hormetan, esate baterako, ikasleen izenen kartelak tokiko alfabetoan eta jatorrizko hizkuntzen alfabetoan idatziz, proiektuetako muraletan eta apaingarrietan informazioa ikasle etorkinen ama hizkuntzetan ere idatziz, liburutegian ikasleen hizkuntzetan idatzitako liburuak edo testuak egon daitezke, esate baterako. Hizkuntz paisaia ikasleen ama hizkuntzetan idazteko, ordea, familien laguntza ezinbestekoa izango da. Familiei prozesu horren partaide sentiarazi behar diegu eta haien hizkuntzak balioesten direla adierazi behar diegu.

---

<sup>2</sup> “Hizkuntz paisaia” terminoa Laundry-k eta Bourhis-ek 1997. urtean lehenengo aldiz erabili zuten haien ikerlanetan eta kontzeptu horrek gure inguruneko idatzizko informazioan hizkuntza nola erabiltzen den adierazten du. Hizkuntz paisaiak bi funtzio izan dezake: informatiboa eta sinbolikoa. Lehenengoa, hizkuntz baten lurralde mugak adierazten dituen bitartean, bigarrenak, ordea, hizkuntzen balioa eta estatusa nolakoa den erakusten du (Cenoz eta Gorter, 2008).

Ikasle etorkinen hizkuntzak balioesteko beste modu batzuk dira irteera-sarreretan ikasleak eta familiak agurtzeko ikasleen ama hizkuntzan ere egitea, gelan erabiltzeko moduko formula linguistikoak ikasi eta zentzuz erabiltzea, edota irakasleak ikasleen izenak ondo ahoskatzen ikastea.

Beste alde batetik, eskolako ekitaldi eta familien harreran kulturartekotasunak eta hizkuntz aniztasunak presentzia izan beharko lukete. Eta horretarako, esate baterako, ikasle nagusien laguntza eska daiteke ekitaldietako aurkezpenak haien ama hizkuntzetan egiteko, ikasleen kultur jatorriko abestiak ikasteko eta familiak eskolan hartzeko. Horrela, eskolan giro afektiboagoa eta ulerkorragoa lortuko dugu kultur eta hizkuntz aniztasuna baloratuz eta errespetatuz.

### **b. Ikasleen ama hizkuntzen erabilera hezkuntza praktikan**

Kontuan izanda ikasgelako irakasleak ez dituela jakingo ikasle guztien ama hizkuntzak, oso zaila edo ezinezkoa izango da irakasleak ikas-irakas jarduerak umeen ama hizkuntzan egitea. Hala ere, Vilaren (2010) azalpenei jarraituz, inportantea da irakasleak ezagutzea ikasle guztiek etxeko hizkuntzan garatu dituzten trebetasun linguistikoak eta trebetasun horietaz baliatzea ikasleek eskolako hizkuntza garatu dezaten.

Bide horretan lan egiteko, irakasleak ez die ikasleei ama hizkuntzan hitz egitea debekatu behar; are gehiago, bultzatuz dezake ama hizkuntza bera hitz egiten duten ikasleen arteko komunikazioa. Bestalde, askatasuna eman diezaieke ikasleei ikasgelara eraman behar duten informazioa haien hizkuntzan idatzita eraman dezaten eta ikasgelako zenbait jardueretan ere (muraletan, idatzizko lanetan, ...) haien ama hizkuntza erabiltzea adostu dezakete, eta ikasten ari diren gaien buruzko terminologia ere ama hizkuntza ezberdinetan ikasi eta idatz daiteke. Izan ere, lehen aipatu bezala, ama hizkuntzaren balioesteak eskolako hizkuntzaren garapenean lagunduko du.

Bestetik, ikaste prozesuan ikasleen ama hizkuntzen erabilera are gehiago indartzeko, irakasleak alfabetatzea eskolako hizkuntzan sustatzeaz gain, ikasleen etxeko hizkuntzan ere sustatu dezake. Ildo horretatik, “liburu bidaiariaren” jarduera interesgarria izan daiteke: Haur Hezkuntzan, esate baterako, ikasleei gustatu zaien ipuina etxera eraman eta familiek hizkuntza ezberdinetara itzultzen lagundu ahal dute, ikasleek ipuina hainbat hizkuntzatan idatzita ikusteko.

### **c. Ama hizkuntzen irakaskuntza**

Baliabideak badaude, eskolaz kanpoko ordutegian ikasleen ama hizkuntzetako ikastaroak ere antola daitezke eskolako ikasleentzat.

Vilak (2010) aipatzen dituen hiru eremu horietan, era batean edo bestean, familiaren eta eskolaren arteko laguntza beharrezkoa izango da ikasleen ama hizkuntzak indartzeko. Hain zuzen ere, Vilak, Siqués-ek eta Roig-ek (2006) Thornwood hezkuntza komunitatean bizitako hizkuntz aniztasun esperientzia aztertuta, ondorioztatu dute ikasleen ama hizkuntza indartzeko eskolak egiten duen lanarekin batera familien parte hartzea beharrezkoa dela. Berdin dio zein den familien hizkuntza: nahiz eta familiek eskolaren hizkuntza ez ezagutu edo gutxi ezagutu, eskolako jardueretan parte hartzeko aukera dago. Are gehiago, autore horiek diotenez, aztertutako esperientzian, familiek eskolako hizkuntzan komunikatzeko mugak izan arren, irakasleek eskolako jardueretan parte hartzeko eskatzen zietenean, familiak oso pozik sentitzen zirela adierazten zuten. Beraz, familien parte hartzeak ikasleen eta familien autoestima handitzen du, irakasleek ama hizkuntzarekiko duten pertzepzioa hobetzen laguntzen du (haien hizkuntzei estatus altuagoa emanez) eta haien jatorrizko identitatea berresten laguntzen die.

Orain arte esandakoa interesgarria da eta bide berriak zabaltzen ditu. Baina gaia ez dago batere agortua. Oraindik asko dago ikertzeko. Proposamen berritzaileak behar-beharrezkoak dira hain aldakorra den gizarte honetan.

Behin gaiari buruz autoreek diotena aztertuta, interesgarria iruditu zaigu eskolara hurbiltzea praktikan ikasleen ama hizkuntzak ikastetxeetan zelan tratatzen diren aztertu eta, egoera berriaren aurrean, hezkuntzan aldaketak ze neurritan gertatzen ari diren ikusteko asmoz. Ondorengo atalean, beraz, sakon azaltzen da eskolan egin dugun azterketa.

## **2. Metodologia eta lanaren garapena**

Azterlanaren helburua gela batetako ume etorkinen jatorrizko hizkuntzari eskolan ematen zaion trataera aztertzea da. Horretarako, lehenik eta behin, ikerketaren testuingurua azalduko dugu. Hiriburu erdian kokatutako ikastetxe publiko batetako

Haur Hezkuntzako 4 urteko gela bat aztertu dugu, 2014ko urtarrilaren 8tik maiatzaren 26ra, irakasle praktikak egin bitartean.

Lan honen testuingurua ulertzeko, ezinbestekoa da eskolari buruzko hainbat datu ezagutzea. Zuzendariaren informazioaren arabera, eskola publiko honek 280 ikasle ditu eta horietatik %15 jatorrizko etorkinak dira eta %60 gure herrian jaio baina familia etorkina dutenak. Edozelan ere, lan honetan zehar "ikasle etorkin" izendatu ditugu bai kanpoan bai bertan jaiotakoak, talde bietan egon daitezkeelako ez ofiziala den beste hizkuntza baten hiztunak.

Eskola honek betidanik izan du etorkin kopuru handia; hala ere, azken urteotan, kopuru hori askoz altuagoa da. Ikasle atzerritarren hazkunde hori bi arrazoi nagusirengatik gertatzen ari da. Lehen, eskola hiriaren erdigunean egon arren, ikastetxera doazen umeen gehiengo handik hurbil dagoen beste auzune batean bizi delako, hain zuzen ere, etorkin gehien biltzen dituen hiriko auzoa: biztanle etorkin guztien %21,7, hiri horretako Immigrazio Behatokiaren arabera<sup>3</sup>. Eta bigarrena, eskolako ikasleen ezaugarriak ezagututa, eskola ondoan bizi diren familia autoktonoen artean, "ihes efektua" sortzen delako. Haur Hezkuntzan oraindik, efektu hori ez da hain nabaria, baina Lehen Hezkuntzan, ordea, ikasle autoktono gehienak hiriko beste eskola batera joaten dira, eta Lehen Hezkuntzako ikasle ia guztiak dira etorkinak.

Bestalde, zuzendariak emandako argibideekin jarraituz, eskola honetan 20 herrialde baino gehiagotik etorritako ikasleak daude eta ez omen dakite zehazki zenbat ama hizkuntza dauden eskolan, ikasle batzuek hizkuntza nagusi baten dialekto edota tokiko hizkuntza gutxituak hitz egiten dituztelako. Hala ere, haien datuen arabera, 11 ama hizkuntza diferente egon daitezke. Irakasleek ez dakizkiten eskolako hizkuntza nagusiak ondorengoak dira: arabiera, txinera eta errumaniera.

Aztertu dugun ikastaldeari dagokionez, ikasgelan 4 urteko 23 ume daude. Horietatik, 4 ume marokotarrak dira eta arabiera dute ama hizkuntza, 2 ume txinatarrak dira eta txinera dute ama hizkuntza, beste 2 errumaniarrak dira eta errumaniera dute ama hizkuntza, 4 ume autoktonoak dira eta horietatik bik euskara dute ama hizkuntza, eta gainontzekoak, ostera, hegoamerikarrak dira eta gaztelania dute ama hizkuntza. Ume horien familia gehienek gaztelania ezagutzen dute, baina familia txinatarrak, ordea, gaztelanian oso maila eskasa dute eta batzarretan interpretea eskatzen dute. 23 ume

---

<sup>3</sup> Ez da gehiagorik zehazten ikastetxe horren izengabetasuna bermatzearren.

horietatik, bi dira aurtien EAera etorri direnak eta aurretiaz eskolatu gabe egon direnak; besteek familia etorkina dute, baina tokian jaiotakoak dira.

Behin ikerketaren testuingurua azalduta, gela horretako haur etorkinen ama hizkuntzari ematen zaion trataera aztertzeko beharrezkoa izan zaigun informazioa jasotzeko erabilitako teknikak azalduko ditugu. Hiru teknika ezberdin erabili ditugu: idatzizko dokumentuen azterketa, behaketa eta elkarrizketa.

Lehenengo teknika idatzizko dokumentuen azterketa izan da. Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Ikasle Etorkinen Harrera Plana aztertu ditugu. Hizkuntza Plana eta Kulturartekotasun Proiektua ere eskatu izan ditugu, baina azken dokumentu bi hauek oraindik egin gabe daude. Dokumentu ofizialetan ikasleen ama hizkuntzaren trataerari ze erreferentzia egiten zaion arakatu dugu.

Erabilitako beste teknika bat behaketa izan da. Behaketaren bidez aztertu nahi izan dugu Haur Hezkuntzako 4 urteko gela horretan ikasle etorkinen ama hizkuntzen presentzia sinbolikoa eta baita hizkuntza horiek hezkuntza praktikan zelan erabiltzen diren ere.

Behaketa egiteko bi tresna erabili ditugu, kontrol zerrenda (ikus 1. eranskina) eta ez-ohiko erregistroa. Kontrol zerrendaren bitartez, eguneroko egoeretan eta hizkuntza paisaian ikasle etorkinen ama hizkuntzaren trataerarekin erlazionaturiko adierazle batzuen presentzia ala presentzia-eza aztertu dugu. Adierazle horiek aukeratzeko, adituek zehaztutako proposamenetan (Vila, 2010) oinarritu gara eta, gainera, kontuan hartu dugu Ainscow eta Booth (2005) autoreen *Hezkuntza inklusiboa ebaluatzen eta hobetzeko gida* ere. Adierazle horiek erabiliz eskolako eta ikasgelako hiru alderdiri buruzko informazioa jaso nahi izan dugu: ikasleen ama hizkuntzek sinbolikoki eskolan eta ikasgelan duten presentzia eta ikasleen ama hizkuntzek ikasgelan ikas-irakas prozesuetan duten erabilera. Lehenengo esparruko adierazleen bidez, batez ere, eskola eta gelako hizkuntz paisaiari buruzko informazioa jaso dugu. Bigarren esparruan, ordea, ikasleen ama hizkuntzen erabileran sakondu dugu. Azken esparruan, ikasleen ama hizkuntzak eskolan ikasteko dagoen aukera aztertu dugu. Gainera, hori guztia nola lortzen den ere behatu dugu eta, horretarako, familien laguntza eta familia eta eskolaren arteko komunikazioari buruzko informazioa ere jaso dugu. Kontrol zerrenda astean behin pasatu dugu, 17 astez, astearte goizetan, egun horretan egoten ginelako ikasgelan denbora gehien.

Behaketa egiteko erabili dugun bigarren tresna ez-ohiko erregistroa izan da, bertan kontrol zerrendatik kanpo gera zitezkeen gertaerak, egoera puntualetan gertatzen zirenak, jasotzeko. Horrela, eskolan sartu ginenetik, ikasle etorkinen etxeko hizkuntzei eskolan eta gelan ematen zitzaizkien trataerari arreta jarri diogu eta interesgarriak iruditu zaizkigun gertaerak erregistratu ditugu.

Datuak biltzeko baliatu dugun azken teknika elkarrizketa izan da eta zuzendariari (ikus 2. eranskina) eta Haur Hezkuntzako 4 urteko gelako irakasleari (ikus 3. eranskina) egin diegu elkarrizketa. Zuzendaria aukeratu dugu bera delako eskolaren ezagutza orokorra duen pertsona eta eskolako ikasle guztien datuak biltzen dituenena. Bestalde, irakasleari ere egitea erabaki dugu, gelako ikasleei buruzko datuak dakizkielako eta, behaketa zuzenean antzemandako datuak, bere iritzi eta pentsamenduekin erkatzea ezinbestekoa iruditzen zitzaigulako. Izan ere, askotan zerbait ez egitearen zergatia azaltzen denean, hobeto ulertzen delako egoera edo gertatutakoa. Elkarrizketako galderak prestatu ditugunean, berriro ere marko teorikoan idatzitako proposamenean (Vila, 2010) eta Ainscowen eta Boothen (2005) gidan oinarritu gara.

Datuak bilduta egon direnean, emaitzak atera eta marko teorikoan garatutako ideietan oinarrituta ondorioak atera ditugu. Hau da, ezagutu dugu zelakoa den azterketarako aukeratutako Haur Hezkuntzako taldeko ikasle etorkinen ama hizkuntzen presentzia eta erabilera gelan eta eskolan. Hortik abiatuta, ikasgelako eguneroko praktikan sar daitezkeen hobekuntzak proposatzeko aukera baloratu genuen, baina lan honek duen denbora eta espazio mugak direla eta, ez dugu proposamen hori lan honetan sartu.

Ondoren, azterlana egitean lortutako emaitzak eta ateratako ondorio eta hausnarketak azalduko ditugu.

### **3. Emaitzak eta ondorioak**

#### **3.1. Emaitzak**

Datuak bildu eta aztertu ostean, hamaika emaitzarik nabarmenenak aurkeztuko ditugu.

Lehena, eskolako bi dokumentu ofizialetan aipatzen dira ikasle etorkinak. Lehenengo dokumentuan, Hezkuntza Proiektuan, eskola inklusiboari buruzko atalean, jatorri anitzeko ikasleei erantzuna eman behar zaiela esaten da eta, horretarako, Ikasle

Etorkinen Harrera Plana dago. Bigarren dokumentu horretan azaltzen dira ikasle etorkinen inguruko informazioa biltzeko argibideak, ikasle etorkinak eskolatzean jarraitu beharreko prozedura eta ikastetxeak ikasleari eman beharreko laguntzak. Bi dokumentu horietan, ordea, ez da ikasleen jatorrizko hizkuntzari buruzko aipamenik egiten. Baina esaten da eskolako hizkuntza gaztelania eta euskara direla, eta hizkuntza horiei eman behar diela lehentasuna eskolak, eta horretarako, ikasle etorkinei behar diren tresnak eman behar zaizkiela hizkuntza horiek ikas ditzaten.

Bigarrena, eskolak esperientzia zabala du ikasle etorkinen harreran, baina azterlana egin den garaian ez zuen kulturartekotasun proiekturik martxan ezta Hizkuntza Proiekturik ere.

Hirugarrena, irakasleek ezagutzen ez dituzten ikasleen jatorrizko hizkuntzen artean, eskolan hitzun gehien dutenak txinera, arabiera eta errumaniera dira. Ikasgelan ere hiru hizkuntza horiek dira nagusienak.

Laugarrena, eskolako hizkuntz paisaian agertzen diren ama hizkuntzak gaztelania eta euskara dira. Gainera, idatzizko bestelako informazioa ere ez da EAEn ofizialak ez diren ikasleen jatorrizko hizkuntzetan agertzen. Bestalde, ikasgelako hizkuntz paisaia nagusiki euskaraz dago (hormetako kartelak euskaraz, liburutegiko liburuak euskaraz eta gaztelaniaz, ikasleen izenak latin grafiara egokituta, ...). Azkenik, eta tratatzen ari garen gaiari lotuta, irakasleak ikasleen ama hizkuntzak baloratzea garrantzitsua dela esaten du eta, aldi berean, hizkuntz paisaia beste hizkuntzetan agertzeko beharrik ez dagoela adierazten du, eskolako hizkuntzaren sustatzea delako eskola eta ikasgelako helburua.

Bosgarrena, eguneroko egoeretan ikasle etorkinen ama hizkuntzak ez du presentzia sinbolikorik. Adibidez, ikasgelako sartu-irteeratan ez da ikasleen ama hizkuntzan agurtzen. Egoera puntualetan, ordea, ikasgelan egon garen bost hilabeteotan, birritan joan dira senitartekoak (Marokoko ama bat eta Kolonbiako beste ama bat) haien kultura eta herrialdeei buruz hitz egitera eta jatorrizko hizkuntzen aipamenak egin dira.

Seigarrena, ikasgelan ikasleek ama hizkuntzan hitz egiteko askatasuna dute. Umeen arteko komunikazioa – nahiz eta jatorri hizkuntza bera izan – gaztelaniaz edota euskaraz izaten da.

Zazpigarrena, irakasleak ez ditu ikasle etorkinek jatorrizko hizkuntzan garatutako trebetasun linguistikoak baliatzen eskolako edukiak eta eskolako hizkuntza ikasteko.

Zortzigarrena, eskolaz kanpoko ordutegian, eskolak ez du ikasle etorkinen ama hizkuntzak ikasteko aparteko ikastarorik egiten.

Bederatzigarrena, banakako batzarretan, beharrezkoa denean, interpreteak eskatzen dira. Bestalde, irakasleak eguneroko sartu-irteeretan familiekiko komunikazioa gaztelaniaz bideratzen du. Irakaslea saiatzen da gaztelaniaz bidaltzen duen informazioa hizkera ulergarrian (perpaus sinpleak eta hiztegi erraza) idazten.

Hamargarrena, ama hizkuntza bereko familien arteko laguntza sustatzeko ez dugu aparteko esku hartzerik ikusi eta ama hizkuntza bereko ikasleen arteko lankidetzak sustatzeko ere ez.

Hamaikagarrena, familiei ez zaie laguntza eskatzen eskolako eta ikasgelako idatzizko informazioa ikasleen ama hizkuntzetan ager dadin.

### **3.2. Ondorioak**

Hasteko, adierazi beharra dago lan honetan Haur Hezkuntzako gela bakarra ikertu dugula, eta beraz, azterketa oso mugatua izan dela errealitate hori beste ikastetxe batzuetara orokortzeko. Ikerketa txikia izanik bere mugak ditu eta bertan adierazitako datuak eta emaitzak dagozkion testuinguruan ulertu behar direla argi izan behar du irakurleak. Hala ere, azterlan honek balioa izan du aztertutako eskolaren eta ikasgelaren errealitatea gehiago ezagutzeko eta gaian gehiago sakontzeko. Alde batetik, eskolak hizkuntz aniztasuna nola tratatzen duen jakiteko eta, bestetik, hizkuntz aniztasun horrek planteatzen dituen alderdi konplexuak baina, aldi berean, aberasgarriak nola kudeatu hausnartzeko.

Datu objektiboek eta bi profesionalei egindako elkarrizketek adierazten dutenez, orain dela urte batzuetatik hona oso nabaria izan da ikasle etorkinen eskolatzearen hazkundera. Ikusi dugu, gainera, joera dela gero eta ikasle etorkin gehiago izatera gure hezkuntza sisteman eta egoera berri honen aurrean, euskal ikastetxeak prestatu behar direla ikasle guztiak kontuan hartuko dituen eskola inklusiboa eraikitzeko.



Hala ere, ikertutako ikastetxean eta ikasgelan ez du ematen errealitate berri horri modu egokian erantzuteko, momentuz, pauso nahikorik eman denik. Ikusi dugunez, eskolako dokumentu ofizialetan ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzei erreferentzia gutxi agertzen dira. Ikasle etorkinak hartzen urteetako ohitura duen eskola izan arren, ez dago Hizkuntza Planik eta Ikasle Etorkinen Harrera Planean esaten da eskolako hizkuntzak gaztelania eta euskara direla, eta hizkuntza horiei eman behar diela lehentasuna eskolak, eta horretarako, ikasle etorkinei behar diren tresnak eman behar zaizkiela hizkuntza horiek ikas ditzaten, baina ez da aipamenik egiten etorkinen ama hizkuntzen trataerari buruz.

Bestalde, eskolan eta ikasgelan ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzen presentzia sinbolikoa eskasa da. Hizkuntza paisaian ez da gaztelania edo euskara ez den bestelako hizkuntzarik agertzen (hormetako karteletan ez dira ikasle etorkinen hizkuntzak azaltzen, izenak ez dira haien jatorrizko hizkuntzen grafian agertzen, ikasgelako liburutegian ez dago etorkinen ama hizkuntzetan idatzitako libururik), agurrak ez dira ikasleen hizkuntzetan esaten... Horrek ikusezin egiten ditu ikasle etorkinen ama hizkuntzak. Eskola honek jatorri etorkina duten ikasleak hartzeko urteetako esperientzia kontuan izanda, ikasleen ama hizkuntzek presentzia handiagoa izango zutela uste genuen. Egoera horri buruz irakasleari galdetuta, irakasleak ikasleen ama hizkuntzei garrantzia ematen diela adierazten du, baina bestetik, ikasgelan hizkuntza horiek presentzia gutxi dutela konturatzean, euskara dela indartu beharrekoa deritzo.

Beraz, eskolako dokumentuek esaten dutena eta praktikan egiten dena aztertuta, esan dezakegu ez direla aintzat hartzen autoreek ikasleen etxeko hizkuntzaren garrantziaz eman dituzten azalpenak. Marko teorikoan aipatu dugu eskolan umeara ez den hizkuntza batean irakasten denean, behar-beharrezkoa dela haurraren ama hizkuntza onartzea eta zaintzea, bai haurraren autoestima garatzeko eta bai eskolako hizkuntza ikasteko.

Ohiko hezkuntza elebidunean ez zegoen ikasleen ama hizkuntza indartzeko beharrik, gaztelera zelako ingurunean hizkuntza indartsua, eta irakasleek ikasleen etxeko hizkuntza ezagutzen zuten. Egungo egoera berrian, ordea, ikasle etorkin askoren etxeko hizkuntzak presentzia txikia du gizartean eta eskolan irakasleek ez dituzte ezagutzen. Alde handiak daude, beraz, egoera batetik bestera eta ezin zaie modu berean erantzun. Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu arlo honetan irakasleek formakuntza egokia

izatea. Formakuntza da egoera hobetzeko lehen urratsa; izan ere, egoeraz ohartzen ez bagara, ezingo izango baitugu hezkuntza praktika hobetzeko ideiak eta proposamenak bilatu.

Garrantzitsua izango litzateke eskolak gai honen inguruan zerbait adostu eta erabakitzea eta Hizkuntza Proiektua egitea. Horrek lagunduko luke ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzen presentzia normalizatzen eskolan eta ikasgela guztietan oinarrizko pautak batzuk izaten ikasleen jatorrizko hizkuntzaren trataerari dagokionez.

Bide horretan, familia etorkinen laguntza eta elkarlana da irakasleak aprobetxatu ahal duen baliabide nagusienetako bat. Familiak gelara etorri eta beren herrialdeari eta hizkuntzari buruz hitz egiteaz aparte, bestelako jardueretan ere parte har dezakete: esate baterako, gelako ipuinen bat jatorrizko hizkuntzan idazten edo kanta bat gelara ekartzen, gelako hizkuntza paisaia jatorrizko hizkuntzan idazten, jatorrizko hizkuntzen astea prestatzen, agurrak haien hizkuntzan esaten irakasten, etab. Ikasle etorkin nagusiak ere oso baliabide aberatsa dira Haur Hezkuntzako umeekin antzeko jarduerak egiteko. Bestalde ama hizkuntza bera erabiltzen duten ziklo bereko ikasleen artean ere indar daiteke komunikazioa jatorrizko hizkuntzetan. Beraz, jarduera anitz egiteko bideak daude ikasleen ama hizkuntzak indartzeko, irakasleek hizkuntza horiek ez ezagutu arren.

Bukatu baino lehen, adierazi nahiko genuke aukeratutako eskolaren etorkin kopuru handiak atentzioa eman digula. Izan ere, eskolako errealitatea ez dator bat zonaldean etorkinek duten presentziarekin. Gainera, Haur Hezkuntzan dauden ikasle autoktono asko, Lehen Hezkuntzara igarotzean, beste ikastetxe batera aldatzen dira, "ihes-efektua" sortuz. Hori arazo handia da, eta euskal eskolak, Eusko Jaurlaritzak buru, gogor lan egin beharko luke eskola inklusiboaren bidean.

Azkenik, gustatuko litzaiguke azpimarratzea ikasle etorkinei egiten zaien harrerak eta jarraipenak agerian uzten dituela eskolan daukagun zenbait erroka. Bat, ikasle etorkinen eskolatzeak eskatzen dituen aldaketak -antolakuntzan, metodologian eta baliabideen erabileran- egitea, jakinda gainera ume guztien onurarako izango direla. Beste bat, gelako ikasle guztiak ikasle etorkinek dakartzaten kultur eta hizkuntz aniztasunaz aberastuko dira, ikasgelan sortzen den kultur eta hizkuntz aniztasunaz baliatzea errespetua, lankidetzeta eta tolerantzia bezalako baloreak lantzeko.

### 3.3. Etorkizunerako proposamenak

Lan honek jatorri etorkineko ikasleen eskolatzean hezkuntza elebidunean sortu den egoera berria aditzera eman nahi du, eta egoera berri horri erantzuna emateko, hezkuntza sistemak aldaketa berritzaileak aurrera eramane behar dituela argitu nahi du.

Aitortu ditugu gure azterlanaren mugak: ikastetxe batetako ikasgela bakarrean egin dugu ikerketa. Baina uste dugu baliagarria izan daitekeela etorkizunean ikastetxe eta ikasgela gehiagorekin egin nahi izanez gero, oinarri moduan hartzeko. Kasu horretan, interesgarria izango litzateke datuak jasotzeko erabili ditugun tresnak hobetzea, bereziki, kontrol zerrenda.

Lan honi jarraipena emateko, ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzen trataeran askoz gehiago sakon daiteke, lan honek ikutzen ez dituen beste alderdi batzuk ikertuz: profesionalen formakuntza, metodologia berriak, hizkuntz aniztasunak ematen duen aberasgarritasuna baliatzeko moduak (aprobetxatzen jakitea), ikasleen onarpena bere osotasunean...

Bestalde, aipatu nahi genuke sumatu dugun gabezia bat lan hau egiteko orduan. Hainbat bibliografia-iturri kontsultatu behar izan dugu, eta kultur eta hizkuntz aniztasunari buruzko ikerketak dauden arren, ez dugu aurkitu EAEn egin diren praktika onak batzen duen bibliografiarik. Gure herrian jatorri etorkina duten ikasle etorkinekin praktika onak egiten dituzten euskal ikastexeeetatik informazioa bildu eta horiek ezagutzera eman beharko lirateke, praktika horiek abiapuntu ona izan daitezkeelako antzeko egoeran dauden eskola eta irakasleentzako, hau da, irakasleek ezagutzen ez dituzten ama hizkuntzei zelako trataera eman behar zaien jakiteko eta ikasgeletako egunerokotasunean hori nola egokitu daitekeen hausnartzeko.

Esan bezala, lan honetako gaiak hainbat bide du sakontzeko, kontuan izanda, gure herriko egoera berezia dela. Etorkin asko eskolatzeko dira gaztelania jakin gabe eta eskolako hizkuntza beste bat da, euskara, inguruneko hizkuntza ahula. Honek aparteko

balioa ematen die gure herrian ikasle etorkinen inguruan egin diren eta egingo diren ikerketei.

#### 4. Erreferentzia bibliografikoak

- Ainscow M., Booth T. (2005). *Hezkuntza inklusiboa ebaluatzeko eta hobetzeko gida. Eskoletako ikaskuntza eta partaidetza garatuz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Barquín, A. (2009): "De donde son los hijos de los inmigrantes: La construcción de la identidad y la escuela." *Revista Educar*, 44, 81-96.
- Bilbao, X. (1998): "Hezkuntza elebidunaren onurak eta arriskuak" in *Hezkuntza Elebiduna. Zenbait oinarri*. Gasteiz: UPV-EHU eta Arabako Foru Aldundia, 49-66.
- Cenoz, J., Gorter, D. (2008): "Hizkuntz paisaiaren ikerketa" in *erabili.com*. 2014-05-10ean hartua, hemendik:  
[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1207819885](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1207819885)
- Cummins (2001): "La lengua materna de los niños bilingües, ¿por qué es importante para la educación?". 2014-03-05an hartua, hemendik:  
[http://www15.gencat.net/pres\\_casa\\_llengues/uploads/articles/La%20lengua%20materna%20de%20los%20ni%C3%B1os%20biling%C3%BCes.pdf](http://www15.gencat.net/pres_casa_llengues/uploads/articles/La%20lengua%20materna%20de%20los%20ni%C3%B1os%20biling%C3%BCes.pdf)
- Eusko Jaurlaritz (2012): *Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako plana, eskola-eredua inklusibo eta kulturartekoaren barruan 2012-2015*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2014-03-05an hartua, hemendik:  
[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_diversid/adjuntos/17\\_aniztasuna\\_120/120009e\\_Pub\\_EJ\\_etorkin\\_plana\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120009e_Pub_EJ_etorkin_plana_e.pdf)
- Etxeberria, F. (2006): "Hizkuntza irakaskuntza ikasle etorkinekin" in *Jakin* aldizkaria 154. alea. 2014-05-15an hartua, hemendik:  
<http://www.jakingunea.com/aldizkaria/artikulua/hizkuntza-irakaskuntza-ikasle-etorkinekin/21>
- Vila, I (2010): "Qué puede aportar la educación bilingüe a la educación del siglo XXI". *Avances en supervisión educativa. Revista de la Asociación de Inspectores de Educación de España*, 13.
- Vila, I., Serra J.M (2009): "Bigarren Hizkuntzak eta eskola" in Ruiz Bikandi, U. (apailatz.) (2009): *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. UPV- EHUko Argitalpen Zerbitzua. 37-45 orr.
- Vila I., Siqués C. & Roig T. (2006): *Llengua, escola i immigració: un debat obert*. Bartzelona: Graó.
- Vila, I., Siguan, M. (1998): *Bilingüisme i educació*. Bartzelona: Proa.

## ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: KONTROL-ZERRENDA

Behaketa lan honetan Haur Hezkuntzako 4 urteko gelako ikasle etorkinen ama hizkuntzei buruz arituko gara, eta gelako irakasleak ezagutzen ez dituen ama hizkuntzak hartuko ditugu kontuan. Metodologia atalean esan bezala, gelako ikasle etorkinen ama hizkuntzak txinera, arabiera eta errumaniera dira.

### IKASLE ETORKINEN AMA HIZKUNTZEN PRESENTZIA SINBOLIKOA

#### 1. Eskolako informazio taulak eta hormairudiak ikasleen ama hizkuntzetan idatzita daude.

Arabieraz  Txineraz  Errumanieraz  Euskeraz/gaztelaniaz

#### 2. Eskolako web orrialdea ikasleen ama hizkuntzetan irakur daiteke.

Arabieraz  Txineraz  Errumanieraz  Euskeraz/gaztelaniaz

#### 3. Eskolako ekitaldian ikasleen ama hizkuntzek presentzia dute.

Bai  Ez

#### 4. Ikasgelako bloga ikasleen ama hizkuntzetan irakur daiteke.

Arabieraz  Txineraz  Errumanieraz  Euskeraz/gaztelaniaz

#### 5. Gelan ikasleen izenak ama-hizkuntzen grafian idatzita daude.

Arabieraz  Txineraz  Errumanieraz  Euskeraz/gaztelaniaz

**6. Ikasleek gelan egindako hormairudiak eta lanak ikasleen ama hizkuntzan idatzita daude.**

Arabieraz     Txineraz     Errumanieraz     Euskeraz/gaztelaniaz

**7. Ikasgelako liburutegian ikasleen ama hizkuntzetan idatzitako liburuak daude.**

Arabieraz     Txineraz     Errumanieraz     Euskeraz/gaztelaniaz

**8. Sarrera-irteeretan agurrak ikasleen ama hizkuntzetan egiten dira.**

Arabieraz     Txineraz     Errumanieraz     Euskeraz/gaztelaniaz

**9. Ikasleen ama hizkuntzek presentzia dute.**

Eguneroko errutinetan     Egoera puntualetan

**10. Zelako jarduerak egiten dira ikasleen ama hizkuntzak baloratzeko?**

<input type="checkbox"/> Familien bisitak	<input type="checkbox"/> Informazioaren itzulpenak	<input type="checkbox"/> Liburu bidaiaria
<input type="checkbox"/> Ikasleen jatorriko abestiak ikastea	<input type="checkbox"/> Ikasleen hizkuntzak ikasgelan entzutea	<input type="checkbox"/> Ama hizkuntzen astea/eguna (hizkuntzei buruzko jarduerak bereziak)

**11. Irakaslea saiatzen da umeen izenak ondo ahoskatzen**

Bai     Ez

**IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN ERABILERA HEZKUNTZA PRAKTIKAN**

**12. Irakaslearen eta ikasleen arteko elkarrizketetan ikasleen ama hizkuntzen berbak erabiltzen dira ikasi nahi denaren esanahia negoziatzeko.**

Arabieraz     Txineraz     Errumanieraz     Euskeraz/gaztelaniaz

**13. Gelan ikasleen jatorrizko kulturari buruzko informazioa ematen da.**

Maroko     Txina     Errumania     Hegoamerika

**14. Gelan ama hizkuntza bera duten ikasle etorkinek haien ama hizkuntzetan hitzegiteko debekua dago.**

Bai     Ez

**15. Gelan ama hizkuntza bera duten ikasleek haien artean bere ama hizkuntzan hitzegiten dute.**

Arabieraz     Txineraz     Errumanieraz     Euskeraz/gaztelaniaz

**16. Ama hizkuntza bera duten adin ezberdinetako ikasleen elkar laguntza sustatzen da gelan.**

Bai     Ez

**17. Eskolako zereginetan ama hizkuntza bera duten ikasleen arteko komunikazioa sustatzen da gelan.**

Bai     Ez

**18. Nola antolatzen da hezkuntza praktika komunikazioa bultzatzeko?**

Taldekako lana  Lan kooperatiboa  Talde handian komunikazioa

**IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN IKASKETA ESKOLAN**

**19. Eskolaz kanpoko ordutegian ikasleen ama hizkuntzak irakasten dira.**

Bai  Ez

**FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA ETA LANKIDETZA**

**20. Familiek laguntzen dute eskolako karteletan, testuetan, web orrialdean haien ama-hizkuntzan testuak idazten eta itzultzen.**

Bai  Ez

**21. Familiek ulertzen ez dutena irakaslearekin argitzeko aukera dute**

Bai  Ez

**22. Irakasleak ahaleginak egiten ditu ikasleen ebaluazio txostenak familientzat ulertterazak izan daitezen.**

Bai  Ez

**23. Hizkuntza bereko familien artean laguntza sustatzen da**

Bai  Ez



**KONTROL-ZERRENDA EMAITZEKIN**

Behaketa lan honetan Haur Hezkuntzako 4 urteko gelako ikasle etorkinen ama hizkuntzei buruz arituko gara, eta gelako irakasleak ezagutzen ez dituen ama hizkuntzak hartuko ditugu kontuan. Metodologia atalean esan bezala, gelako ikasle etorkinen ama hizkuntzak txinera, arabiera eta errumaniera dira.

**IKASLE ETORKINEN AMA HIZKUNTZEN PRESENTZIA SINBOLIKOA**

**1. Eskolako informazio taulak eta hormairudiak ikasleen ama hizkuntzetan idatzita daude.**

Arabieraz    Txineraz    Errumanieraz    Euskeraz/gaztelaniaz

**2. Eskolako web orrialdea ikasleen ama hizkuntzetan irakur daiteke.**

Arabieraz    Txineraz    Errumanieraz    Euskeraz/gaztelaniaz

**3. Eskolako ekitaldian ikasleen ama hizkuntzek presentzia dute.**

Bai    Ez

**4. Ikasgelako bloga ikasleen ama hizkuntzetan irakur daiteke.**

Arabieraz    Txineraz    Errumanieraz    Euskeraz/gaztelaniaz

**5. Gelan ikasleen izenak ama-hizkuntzen grafian idatzita daude.**

Arabieraz    Txineraz    Errumanieraz    Euskeraz/gaztelaniaz

**6. Ikasleek gelan egindako hormairudiak eta lanak ikasleen ama hizkuntzan idatzita daude.**

Arabieraz    Txineraz    Errumanieraz    Euskeraz/gaztelaniaz

**7. Ikasgelako liburutegian ikasleen ama hizkuntzetan idatzitako liburuak daude.**

Arabieraz  Txineraz  Errumanieraz  Euskeraz/gaztelaniaz

**8. Sarrera-irteeretan agurrak ikasleen ama hizkuntzetan egiten dira.**

Arabieraz  Txineraz  Errumanieraz  Euskeraz/gaztelaniaz

**9. Ikasleen ama hizkuntzek presentzia dute.**

Eguneroko errutinetan  Egoera puntualetan

**10. Zelako jarduerak egiten dira ikasleen ama hizkuntzak baloratzeko?**

Familien bisitak  Informazioaren itzulpenak  Liburu bidaiaria

Ikasleen jatorriko abestiak ikastea  Ikasleen hizkuntzak ikasgelan entzutea  Ama hizkuntzen astea/eguna (hizkuntzei buruzko jarduerak bereziak)

**11. Irakaslea saiatzen da umeen izenak ondo ahoskatzen.**

Bai  Ez

**IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN ERABILERA HEZKUNTZA PRAKTIKAN**

**12. Irakaslearen eta ikasleen arteko elkarrizketetan ikasleen ama hizkuntzen berbak erabiltzen dira ikasi nahi denaren esanahia negoziatzeko.**

Arabieraz  Txineraz  Errumanieraz  Euskeraz/gaztelaniaz

**13. Gelan ikasleen jatorrizko kulturari buruzko informazioa ematen da.**

Maroko     Txina     Errumania     Hegoamerika

**14. Gelan ama hizkuntza bera duten ikasle etorkinek haien ama hizkuntzetan hitzegiteko debekua dago.**

Bai     Ez

**15. Gelan ama hizkuntza bera duten ikasleek haien artean bere ama hizkuntzan hitzegiten dute.**

Arabieraz     Txineraz     Errumanieraz     Euskeraz/gaztelaniaz

**16. Ama hizkuntza bera duten adin ezberdinetako ikasleen elkar laguntza sustatzen da gelan.**

Bai     Ez

**17. Eskolako zereginetan ama hizkuntza bera duten ikasleen arteko komunikazioa sustatzen da gelan.**

Bai     Ez

**18. Nola antolatzen da hezkuntza praktika komunikazioa bultzatzeko?**

Taldekako lana     Lan kooperatiboa     Talde handian komunikazioa

## **IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN IKASKETA ESKOLAN**

**19. Eskolaz kanpoko ordutegian ikasleen ama hizkuntzak irakasten dira.**

Bai       Ez

## **FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA ETA LANKIDETZA**

**20. Familiak laguntzen dute eskolako karteletan, testuetan, web orrialdean haien ama-hizkuntzan testuak idazten eta itzultzen.**

Bai       Ez

**21. Familiak ulertzen ez dutena irakaslearekin argitzeko aukera dute.**

Bai       Ez

**22. Irakasleak ahaleginak egiten ditu ikasleen ebaluazio txostenak familientzat ulertterazak izan daitezen.**

Bai       Ez

**23. Hizkuntza bereko familien artean laguntza sustatzen da.**

Bai       Ez

## **2. ERANSKINA: ZUZENDARIARI ELKARRIZKETA**

### **ESKOLARI BURUZKO DATUAK**

- 1. Zenbat ume daude eskolan? Horietatik zenbat dira etorkinak edota etorkinen seme-alabak? Zein herrialdeetakoak? Zein da haien jatorrizko hizkuntza?**
- 2. Ikasle etorkinen presentzia eskolan fenomeno berri bat da?**
- 3. Noiztik datoz etorkinak eskola honetara?**
- 4. Zer egin du eskolak egoera horri erantzuteko?**
- 5. Egoera berri horri erantzuteko laguntzarik jaso duzue Administrazioaren aldetik?**
- 6. Badago Hizkuntza Planik eskolan?**

### **IKASLEEN JATORRIZKO HIZKUNTZEN TRATAERA ESKOLAN**

- 7. Zelako garrantzia ematen dio eskolak ikasleen jatorrizko hizkuntzei?**
- 8. Eskura al dago guztientzat ikastetxeari buruzko informazioa, jatorrizko hizkuntza bestelakoa denean?**
- 9. Nola tratatzen ditu eskolak ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak?**
- 10. Eskolak ba al du ikasleen kultur testuinguru bera eta hizkuntza bera duen norbait eurei irakasteko eta laguntzeko?**

### **FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA**

- 11. Zergatik erabakitzen dute, oro har, familia etorkinek haien seme-alabak D ereduan izen-ematea?**
- 12. Hizkuntza paisaia ez da ikasleen ama hizkuntza askotan agertzen, baloratu duzue inoiz familiei laguntza eskatzea horrelako informazioa haien hizkuntzetara itzultzeko?**
- 13. Nola bideratzen da familia eta irakasleen arteko komunikazioa (banakako batzarretan eta batzar orokorretan) familien hizkuntza bestelakoa denean?**

## **ESKOLARI BURUZKO DATUAK**

### **1. Zenbat ume daude eskolan? Horietatik zenbat dira etorkinak edota etorkinen seme-alabak? Zein herrialdeetakoak? Zein da haien jatorrizko hizkuntza?**

Eskola publiko honek 280 ikasle ditu eta horietatik %15 etorkinak dira. Familia etorkina duten ikasleak, baina gure herrian jaiotakoak direnak, EAEn ofizial ez den ama hizkuntza bat izan dezakete, baina ez dira ikasle etorkinen kopuru horretan sartzen, ikasle hauek %60 dira eskolan. Beraz, gainontzeko %25 ikasleak autoktonoak dira.

Datu hauek ez datoz bat Eusko Jaurlaritzaren datuekin. Jaurlaritzak jatorri etorkina duten ikasleak baina bertan jaiotakoak edo bi urte baino gehiago bertan bizitzen daramatzatenak, ez dituelako kontuan hartzen. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren arabera, eskola honetako ikasleen %15 bakarrik dira etorkinak, eta datu horren arabera ipintzen ditu giza-baliabideak.

### **2. Ikasle etorkinen presentzia eskolan fenomeno berri bat da?**

Betidanik egon dira, baina ez horren kopuru handian. Orain, eskolak ikasle etorkin kopurua handia du. Batez ere, San Frantzisko kaleko, Miribilla eta Zabalburu zonaldeko familia asko eskola honetara etortzen direlako. Gero eta etorkin gehiago hartzen ari gara, eta Haur Hezkuntzan eskolatzea erabakitzen duten familia autokotonoek, seme-alabak Lehen Hezkuntzara pasa behar dutenean, ikastetxez aldatzen dituzte. Alde batetik, Haur Hezkuntzan etxea eta eskolaren gertutasuna baloratzen dutelako eta seme-alabak handiagoak direnean, etorkin kopuru txikiagoa duen beste eskola batera aldatzea premiazkoa ikusten dutelako.

### **3. Noiztik datoz etorkinak eskola honetara?**

Nik ezagutzen dudanetik, betidanik egon dira, baina ez kopuru hain handian. Azken urteotan ikasle etorkin kopuru oso handia hartzen ari gara.

### **4. Zer egin du eskolak egoera horri erantzuteko?**

Eskolan lan egiten duten profesionalak esperientzia hartzen ari dira talde honen erantzunei egokitzeko, eta alde horretatik, ohitura hartu dugu. Kulturartekotasun proiektua egon zenean, formakuntza ere jaso genuen.

## **5. Egoera berri horri erantzuteko laguntzarik jaso duzue Administrazioaren aldetik?**

Aurten eskolan hizkuntza indartzeko irakasle (HIPI) bat dugu Lehen Hezkuntzan, baina irakasle hau ikasle etorkin berriekin egoten da bi urtetan. Eskolatik askotan esan dugu bi urtetan etorri berria den ikasle batek EAeko bi hizkuntza ofizialak ikastea utopia dela, baina egoera horrela da. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren arabera, ikasle etorkinek bi urte HIPIarekin egon ondoren, EAeko hizkuntzetan errefortsurik behar ez dute.

## **6. Badago Hizkuntza Planik eskolan?**

Aurten Hezkuntza Plana egin berri dugu eta Hizkuntza Plana egin gabe dago oraindik, lehenengoaren zati bat delako, hizkuntzen arloan gehiago sakontzen duena.

## **IKASLEEN JATORRIZKO HIZKUNTZEN TRATAERA ESKOLAN**

### **7. Zelako garrantzia ematen dio eskolak ikasleen jatorrizko hizkuntzei?**

Ikasleen jatorrizko hizkuntzak oso garrantzitsuak direla uste dut, baina eskola mailan ez dira tratatzen eta ikasgela barruan irakaslearen eskuetan dago hori nola tratatu. Egia esan, eskolak ez du ezer arautu momentuz.

### **8. Eskura al dago guztientzat ikastetxeari buruzko informazioa, jatorrizko hizkuntza bestelakoa denean?**

Momentu honetan, kulturartekotasun proiekturik martxan ez dagoela, informazioa EAEn ofizialak diren bi hizkuntzatan ematen da, euskaraz eta gaztelaniaz, alegia. Eskolako informazio bisuala bestelako hizkuntzetan itzultzea ez dugu bideragarri ikusten irakasleen lan-ordutegiaren barruan. Horretarako, ardura hartu behar duen pertsona bat beharko genukeelako, eta momentu honetan ez dago horretarako dirurik. Gainera, kulturartekotasun proiekturako dirurik ez dago, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, eskolan ume gutxi direlako etorkin, eskolako ume gehienak bertan jaiotakoak direlako, jatorri etorkina izan arren. Beraz, Eusko Jaurlaritzak ez du premiazkoa ikusten eskola honetako kulturartekotasun proiekturako dirua ematea. Eusko Jaurlaritzak ez du ikusten jatorri etorkina duten ikasleak, kasu gehienetan, etxeko hizkuntza, ohiturak, arauak, tradizioa, giroa, kultura ez direla bertokoak eta hori ere landu beharra dagoela.

### **9. Nola tratatzen ditu eskolak ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak?**

Kulturartekotasun proiektua bazegoen eskolan, baina lehen esan bezala, orain dela bi urte Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza kendu zuen. Proiektua egon zenean, irakasle erdia prestatzen zuen proiektua, orain ezinezkoa da horri aurrera ateratzea.

Kulturartekotasun proiektua zegoenean, hortaz arduratzen zen irakasleak familiekin ekintzak antolatzen zituen eta irakasleei ere formakuntza ematen zien eta proiektuen parte hartzea koordinatzen zuen. Momentu honetan, bideragabea da kulturartekotasunaz pertsona bat arduratzea horretarako dirulaguntzarik ez dagoen bitartean.

### **10. Eskolak ba al du ikasleen kultur testuinguru bera eta hizkuntza bera duen norbait eurei irakasteko eta laguntzeko?**

Ez. Batzarretan, adibidez, interpreteak eskatzen ditugu, baina euren lana itzultzea da, ez irakasleei formakuntza ematea. Normalean, eskolara etortzen diren interpreteak familien herrialdekoak izaten dira eta bizpahiru kultur edo ohitura azaltzen dizkigute, baina beti komunikazioan lotura duenarekin eta argitu beharra ikusten dutenean, irakasle eta familiaren arteko gaizki-ulertuak ez gertatzeko.

## **FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA**

### **11. Zergatik erabakitzen dute, oro har, familia etorkinek haien seme-alabak D ereduan izen-ematea?**

Eskola hau aukeratzeko orduan, familiek baloratzen dute etxeko gertutasuna, eta hezkuntza eta jantokirako dirulaguntzak.

Orain dela urte asko, batez ere, familia txinatarrek A eredia baloratzen zuten. Eskola honetan orain dela urte batzuk eredu hori eskaintzen zen. Hala ere, A eredia kendu zenean, familia txinatar askok haien seme-alabak Cervantes eskolara aldatu zuten A eredia zegoelako bertan. Gaur egun, ordea, publikoan eta Haur Hezkuntzako ikastetxe gehienetan D eredia bakarrik eskaintzen da, beraz, familiek jadanik hori onartu dute.



**12. Hizkuntza paisaia ez da ikasleen ama hizkuntza askotan agertzen, baloratu duzue inoiz familiei laguntza eskatzea horrelako informazioa haien hizkuntzetara itzultzeko?**

Egia esan, ez dugu horretan pentsatu eta ez dugu informazioa itzultzeko familiei laguntza eskatzea baloratu.

**13. Nola bideratzen da familia eta irakasleen arteko komunikazioa (banakako batzarretan eta batzar orokorretan) familien hizkuntza bestelakoa denean?**

Batzar orokorretan, familiak gaztelania ez dakienean, lagun bat ekartzen dute batzarreran esaten denari buruzko laburpenak egiteko. Bestela, banakako batzarra egiten dugu interpretea Eusko Jaurlaritzara eskatuz.

### **3. ERANSKINA: HHko 4 URTEKO GELAKO IRAKASLEARI EGINDAKO ELKARRIZKETA**

#### **IKASLEEN AMA HIZKUNTZEI BURUZKO DATUAK**

- 1. Zenbat ume daude gelan?**
- 2. Horietatik, zenbat dira etorkinak eta zenbat dira familia etorkinetik datozenak baina tokian jaiotakoak?**
- 3. Zenbat ama hizkuntza daude gelan? Zeintzuk?**

#### **IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN TRATAERA GELAN**

- 4. Zelako garrantzia ematen diozu ikasleen jatorrizko hizkuntzei?**
- 5. Zure ustez, ikasleen ama hizkuntzek presentzia eduki behar dute gelako hizkuntz paisaian?**
- 6. Ama hizkuntza bera duten ikasleek, oro har, haien artean ama hizkuntzan komunikatzen dira?**
- 7. Jatorrizko hizkuntza bera duten adin ezberdinetako ikasleen elkar laguntza sustatzen da?**
  - Erantzuna baiezkoa bada, nola?**
- 8. Ze praktikak egin dituzue gelan umeen jatorrizko hizkuntzak balioesteko?**
- 9. Eskolan kulturartekotasun proiektua zegoenean, ikasgela barruko praktikan ikasleen ama hizkuntzak presentzia gehiago zuten?**
  - Erantzuna baiezkoa bada, nola?**

#### **FAMILIEKIKO HARREMANA**

- 10. Zenbat familia ez dira gaztelaniaz ondo moldatzen?**
- 11. Horrelakoetan, interpreterik eskatzen duzue?**

**12. Nola bideratzen duzue batzar orokorretako komunikazioa?**

**13. Gelako hizkuntz paisaia, oharrak, gelako bloga, edota bestelako informazioa ikasleen ama hizkuntzetan ager dadin, baloratu duzue noizbait familien laguntza eskatzea?**

## **IKASLEEN AMA HIZKUNTZEI BURUZKO DATUAK**

### **1. Zenbat ume daude gelan?**

23 ume.

### **2. Horietatik, zenbat dira etorkinak eta zenbat dira familia etorkinetik datozenak baina tokian jaiotakoak?**

Hiru ume etorkinak dira, aurtan lehendabiziko aldiz eskolatu direnak. Haien herrialdeetan ez zeuden eskolaturik eta aurtan heldu dira Bilbora.

### **3. Zenbat ama hizkuntza daude gelan? Zeintzuk?**

Arabea, txinera, errumaniera, gaztelania eta euskara.

## **IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN TRATAERA GELAN**

### **4. Zelako garrantzia ematen diozu ikasleen jatorrizko hizkuntzei?**

Garantzia duela uste dut, baina egia da gelan ez diegula ama hizkuntzei erreferentzia handirik egiten. Uste dut garrantzitsua dela, baina gelan eskolako hizkuntzari, euskarari, ematen diogu garrantzia eta hori da gelan lantzen dugun hizkuntza. Puntualki, kulturartekotasuna lantzeko eta ama hizkuntzei buruz hitzegiteko jarduerak egin daitezke, baina ez da egunerokotasunean lantzen den gaia.

### **5. Zure ustez, ikasleen ama hizkuntzek presentzia eduki behar dute gelako hizkuntz paisaian?**

- Bai / Ez: Ez, eskolako hizkuntza euskara da eta gelako hizkuntz paisaia eskolako hizkuntzan dago bakarrik, hori baita umeek ikasi behar dutena.
- Erantzuna baiezkoa bada, nola egin daiteke hori?

### **6. Ama hizkuntza bera duten ikasleek, oro har, haien artean ama hizkuntzan komunikatzen dira?**

- Bai / Ez: Ez, gaztelania edo euskarara jotzen dute.
- Erantzuna ezezkoa bada, zergatik uste duzu dela hori?

Nik uste dut umeek hizkuntza bat espazioarekin lotzen dutela. Badakite gelan euskara eta ume gehienak gaztelera erabiltzen dutela, eta horregatik, euren artean bi hizkuntz horietara jotzen dute. Patioan, ordea, Haur Hezkuntzako ikasgela ezberdinetako ikasleek, ama hizkuntza bera dutenek, ama hizkuntza erabiltzerajotzen dute, agian eskolaz kanpoko orduetan ere elkarrekin egoten direlako.

### **7. Jatorrizko hizkuntza bera duten adin ezberdinetako ikasleen elkar laguntza sustatzen da?**

- Bai / Ez: Ez. Ikasle nagusiak noizbait gelara etorri dira laguntzera, baina inoiz ez haien ama hizkuntza jardueraren batekin jorratzeko helburuarekin. Bai gertatu da, ordea, gaztelania ez dakiten ikasle etorkinak eskolara etortzea lehendabiziko aldiz, eta komunikazioa ziurtatzeko ama hizkuntza bera duten ikasle nagusien laguntza eskatzea, edota familiekin komunikatzeko egoera oso puntualetan. Baina inoiz ez Haur Hezkuntzako umeen ama hizkuntza indartzeko helburuarekin, argi baitauekagu eskolako hizkuntza euskara dela eta hori dela indartu beharrekoa.

- **Erantzuna baiezkoa bada, nola?**

### **8. Ze praktikak egin dituzue gelan umeen jatorrizko hizkuntzak balioesteko?**

Noizean familiak gelara datoz haien herrialdeei buruz hitzegitera, eta kultur azalpen horretako gai bat ama hizkuntza izaten da.

### **9. Eskolan kulturartekotasun proiektua zegoenean, ikasgela barruko praktikan ikasleen ama hizkuntzak presentzia gehiago zuten?**

- Bai / Ez: Ez, ikasgela barruan orain egiten den praktika bera egiten genuen. Eskolan, aldiz, jarduera gehiago egiten ziren. Esate baterako, kulturartekotasun jaia ospatzen zen eta liburutegiko ipuin batzuk ama hizkuntzetara itzultzen ziren. Lehen komentatu duzun hizkuntza paisaian ama hizkuntzek ez zuten presentziarik eskolan, euskara eta gaztelanoaz idatzita zeuden orduna ere.

- **Erantzuna baiezkoa bada, nola?**

## **FAMILIEKIKO HARREMANA**

### **10. Zenbat familia ez dira gaztelaniaz ondo moldatzen?**

Aurtengo familia txinatarrak ez dira gaztelaniaz ondo moldatzen, arabeak eta errumaniarrak, ordea, nahiko ondo moldatzen dira.

### **11. Horrelakoetan, interpreterik eskatzen duzue?**

Bai. Eusko Jaurlaritzara interpretea eskatzen dugu. Aurten bakarrik txinerako interpretea behar izan dugu.

### **12. Nola bideratzen duzue batzar orokorretako komunikazioa?**

Normalean, batzar orokorrak gaztelaniaz izaten dira eta familiaren bat, ondo moldatzen ez bada, gaztelania dakien lagunen bat ekarri edo gurekin geroago banakako batzarra egiten du eta interpretea eskatzen dugu.

### **13. Gelako hizkuntz paisaia, oharrak, gelako bloga, edota bestelako informazioa ikasleen ama hizkuntzetan ager dadin, baloratu duzue noizbait familien laguntza eskatzea?**

- Bai / Ez: Egia da inoiz ez dugula egin eta ez dugula horretan pentsatu, ez baitugu horren beharrik ikusten. Oharrak, bloga eta informazioa gaztelaniaz eta euskaraz idatzten ditugu.